

**Unibertsitateaz Kanpoko Irakaskuntza Pribatuaren Finantzaketari eta Gastuei  
buruzko Inkesta  
2020-2021 ikasturtea**

**Administrazio Publikoak sarrera arrunten  
% 73,9ren ekarpena egin du hezkuntza pribatuan  
eta % 77,0koa, ikastetxe itunduetan**

**Gastu arruntak 4.886 eurokoak izan dira  
ikasleko, ikastetxe itunduetan, eta 4.318 eurokoa,  
itundugabeetan**

*2022ko azaroaren 28a*

Unibertsitateaz kanpoko irakaskuntza pribatuan, ikastetxe itunduetan ikasten duten ikasleen ehunekoak pixka bat behera egin du: % 95,2 izan da 2020-2021 ikasturtean; 2014-2015ean % 98,1, eta 2009-2010ean, % 98,8.

Ikastetxe itunduetan, ikasleko gastu arruntek % 14,8 egin dute behera; 2009-2010 ikasturtean 4.255 euro ziren eta, 2020-2021 ikasturtean, 4.886. Sarrerei dagokienez, 2009-2010 ikasturtean 4.896 euro ziren eta, 2020-2021 ikasturtean, % 12,7 egin du gora.

Zerbitzu osagarrien erabiltzaile kopuruak behera egin du COVID-19aren ondorioz, eta jantokia da gehien erabiltzen den zerbitzua (ikasleen % 27k).



## IKASTETXEAREN EZAUGARRIAK

**Titulartasunaren arabera.** Azken urteotan, gora egin du Nafarroan ikastetxe pribatuen kopuruak; 2009-10 ikasturtean, 70 zeuden eta, 2020-21ean, 89, neurri handi batean, ikastetxe itundugabeen kopuruak gora egin duelako (+17).

### 1. TAULA

Unibertsitateaz kanpoko ikastetxeak, zentroaren titulartasunaren arabera

	2009-2010 ikasturtea		2014-2015 ikasturtea		2020-2021 ikasturtea	
	Ikastetxeak	%	Ikastetxeak	%	Ikastetxeak	%
Guztira	70	100,0	85	100,0	89	100,0
Ikastetxe itundua	63	90,0	67	78,8	65	73,0
Ikastetxe itundugabea	7	10,0	18	21,2	24	27,0

Iturria: Nastat. Irakaskuntza Pribatuaren Finantzaketari eta Gastuei buruzko Inkesta. INErekin elkarlanean.

**Izaera juridikoaren arabera.** Ikastetxeen % 60 irabazi-asmorik gabeko erakundeei dagozkie, eta gainerakoak, merkataritza-sozietateak eta kooperatibak dira (mota bakoitzeko % 0).

## IKASLEEI BURUZKO EZAUGARRIAK

**Matrikulatutako ikasleak.** Ikasle kopuruak % 9,7 egin du gora 2020-21 ikasturtean, eta 3.500 ikasle gehiago dira, 2009-10 ikasturtearekin alderatuta. 2014-15arekin alderatuta, ikasleen kopuruak % 1,7 egin du gora, eta nabarmentzekoa da ikastetxe itundugabeetako ikasleen igoera (+1.156) eta ikastetxe itunduetan 483 ikasle gutxiago daudela.

**Ikasleak hezkuntza-mailaren arabera.** Haur eta Lehen Hezkuntzako mailetan –ikasle guztien % 50 baino gehiago– beheranzko joera dago ikasle kopuruan, eta, gainerako mailetan, bilakaera positiboa da. Ikastetxe itundugabeetan, ikasle-portzentaje handieneko mailak Haur Hezkuntza (% 32,6) eta Goi Mailako Lanbide Ikasketak (% 30,7) dira.

### 2. TAULA

Ikasle matrikulatuak, hezkuntza-mailaren eta ikastetxeko titulartasunaren arabera

	2009-2010 ikasturtea			2014-2015 ikasturtea			2020-2021 ikasturtea		
	Guztira	Itun.	Itundug.	Guztira	Itun.	Itundug.	Guztira	Itun.	Itundug.
Guztira	36.259	35.833	426	39.101	38.344	756	39.773	37.861	1.912
Haur Hez.	8.329	8.172	157	8.337	7.804	532	7.371	6.747	624
Lehen Hez.	14.049	14.041	8	15.187	15.109	78	14.629	14.466	163
Bigarren Hez.	9.417	9.249	168	10.269	10.269	-	11.185	11.000	185
Batxilergoa	2.728	2.707	21	3.195	3.195	-	3.522	3.469	53
Oinarrizko LH eta antzekoak	181	152	29	335	335	-	340	272	68
Er. Mail. Lan. Ik.	811	811	-	1.001	930	71	1.199	968	231
Goi. Mail. Lan. Ik.	744	701	43	777	702	75	1.527	939	588

Iturria: Nastat. Irakaskuntza Pribatuaren Finantzaketari eta Gastuei buruzko Inkesta. INErekin elkarlanean.



## LANGILEEN EZAUGARRIAK

**Langileak.** Ikastetxeetako langile kopuru osoak % 17,6 egin du gora, eta 635 pertsona gehiago dira, 2009-10 ikasturtearekin alderatuta; % 12,8 gehiago (481 pertsona), 2014-15arekin alderatuta. Eginkizunaren edo eginiko lanaren arabera, irakasle kopuruak egin du gehien gora, eta zerbitzu osagarrietako langileek eta beste langile batzuek pixka bat egin dute gora, aurreko urteen aldean.

**Sexuaren arabera.** 2014-15 ikasturteari dagokionez, gora egin du bai emakume kopuruak (+270) bai gizonenak (+211). 2020-2021 ikasturtean, langile guztien % 72 emakumeak izan dira, eta % 86,8ra arte egin du gora, zerbitzu osagarrietako langileen kasuan.

### 3. TAULA

Guztiralkastetxeetako langileak, eginiko lanaren, titulartasunaren eta sexuaren arabera

	Guztira			Ikastetxe itunduak			Ikastetxe itundugabeak		
	Guztira	Emakumea	Gizona	Guztira	Emakumea	Gizona	Guztira	Emakumea	Gizona
Langileak, guztira	4.235	3.046	1.189	3.985	2.870	1.115	250	176	74
Irakasleak	3.298	2.303	995	3.096	2.161	935	202	142	60
Zer. Osag. Langileak	372	323	49	367	318	49	5	5	-
Beste langile batzuk	565	420	145	522	391	131	43	29	14

Iturria: Nastat. Irakaskuntza Pribatuaren Finantzaketari eta Gastuei buruzko Inkesta. INErekin elkarlanean.

## GASTU ETA SARREREN EGITURA

**Balio absolutuak.** Ikastetxe pribatuek 2020-21 ikasturtean 193.245 mila euroko gastu arruntak izan dituzte, 2014-15ean baino % 15,4 gehiago. Eta 194.167 mila euroko sarrera arruntak izan dituzte (% 13,6).

Unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzaren finantzaketa-iturriari dagokionez, sarrera arrunten % 73,9 Administrazio Publikotik etorri dira (2014-15 ikasturtean baino portzentaje-puntu bat gehiago). Bestalde, % 21,4 etxeek ordaindutako kuotena izan da.

Ikastetxe itunduetan, % 77,0 langileen ordainsarrietara bideratu da eta, gainerako % 23,0a, ondasun eta zerbitzuetako gastuetara. Itundugabeetan, % 62,3 langileen gastuetara bideratu da eta, gainerako % 37,7a, ondasun eta zerbitzuetara.



#### 4. TAULA

Gastu eta sarreren egitura, titulartasunaren arabera. Portzentajeak

	% gastu arrunt guztien gainean		% sarrera arrunt guztien gainean			
	Ikastetxek o langileen gastuak	Ondasun eta zerbitzuetak o gastu arruntak (*)	Ikasleen sarrerak hezkuntza-jarduerengatik	Ikasleen sarrerak zerbitzu osagarriengatik	Sarrerak transferentzia publikoetatik	Beste sarrera pribatu batzuk
<i>Ikastetxeak, guztira</i>	76,3	23,7	15,0	6,4	73,9	4,7
<i>Ikastetxe itundua</i>	77,0	23,0	11,9	6,5	77,0	4,6
<i>Ikastetxe itundugabea</i>	62,3	37,7	79,7	5,2	7,6	7,5

Iturria: Nastat. Irakaskuntza Pribatuaren Finantzaketari eta Gastuei buruzko Inkesta. INErekin elkarlanean.

(\*) Amortizazioak eta zergak barne

Unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzaren finantzaketa-iturriari dagokionez, sarrera arrunten % 73,9 Administrazio Publikotik etorri da (2014-15 ikasturtean baino portzentaje-puntu bat gehiago). Bestalde, % 21,6 etxeek ordaindutako kuotena izan da.

Ikastetxe itunduetan, % 77,0 langileen ordainsarrietara bideratu da eta, gainerako % 23,0a, ondasun eta zerbitzuetako gastuetara. Itundugabeetan, % 62,3 langileen gastuetara bideratu da eta, gainerako % 37,7a, ondasun eta zerbitzuetara.

**Sarrerak ikasleko.** Ikastetxe pribatuek, 2020-21 ikasturtean, ikasleko, 4.882 euroko sarrera arruntak jaso dituzte (2014-15 ikasturtean baino % 11,7 gehiago). Ikastetxe itunduek 4.896 euro jaso dituzte (2014-15 ikasturtean baino % 12,3 gehiago), eta itundugabeek, 4.595 (% 5,7 gutxiago).

Ikasleko dirulaguntza publikoak 3.607 eurokoak izan dira, 2014-15 ikasturtean baino % 13,2 handiagoak. Ikastetxe itunduetan, 3.771 euro izan dira, ikasleko.

Etxeek ikasleko ordaindu dituzten hezkuntza-kuotak 731 eurokoak izan dira, eta, 2014-15 ikasturtean, 582 eurokoak. Zerbitzu osagarriengatik eskainitako kuotek (garraioa, jantokia eta beste), berriz, behera egin dute, ikasleko 493 eurotik 314 eurora, 2020-21 ikasturtean, COVID-19ak eragindako murrizketek eraginda, neurri handi batean.

**Gastuak ikasleko.** Ikasleko gastu arruntak 4.859 eurokoak izan dira (2014-15 ikasturtean baino % 13,5 gehiago). Ikastetxe itundugabeetan, ikasleko gastua 4.318 eurokoa izan da.

Ikasleko langileen ordainsariak 3.760 eurokoak izan dira ikastetxe itunduetan eta 2.688 eurokoak, ikastetxe itundugabeetan.



## 5. TAULA

Gastu eta sarreren egitura, ikastetxearen titulartasunaren arabera. Balioak ikasleko, eurotan.

	Balioak ikasleko	Ikastetxe itunduak	Ikastetxe itundugabeak
Langile-gastuak	3.708	3.760	2.688
Ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak	1.143	1.119	1.604
Zerga-gastuak	8	7	26
GASTU ARRUNTAK, GUZTIRA	4.859	4.886	4.318
Hezkuntza-kuotengatiko sarrerak	731	583	3.664
Zerbitzu osagarriengatiko sarrerak	314	318	241
Dirulaguntza arrunt publikoengatiko sarrerak	3.607	3.771	348
Transferentzia publikoengatiko sarrerak	109	114	13
Beste sarrera pribatu batzuk	120	110	330
SARRERA ARRUNTAK, GUZTIRA	4.882	4.896	4.595
USTIAPEN-EMAITZA	23	10	277
Kapital-gastuak	157	156	177
Kapital-sarrerak	26	27	2

Iturria: Nastat. Irakaskuntza Pribatuaren Finantzaketari eta Gastuei buruzko Inkesta. INErekin elkarlanean.

## ZERBITZU OSAGARRIAK

Zerbitzu osagarrien eta eskolaz kanpoko jardueren ikasle erabiltzaileak 2020-21 ikasturtean, zerbitzu osagarrien ikasle erabiltzaileen kopuruak behera egin du, Covid-19aren ondorioz. Zerbitzu osagarri guztietatik, jantoki-zerbitzuak izan du eskaririk handiena: ikasleen % 26k, ikastetxe itunduetan, eta % 32,9k, ikastetxe itundugabeetan. 2014-15 ikasturtean, % 46,3k eta % 71,0k, hurrenez hurren. Eskola-ordutegitik kanpoko umeen zaintza-zerbitzua da, azken urteotan, goranzko joerari eusten dion bakarra.

## 6. TAULA

Zerbitzu osagarrien eta eskolaz kanpoko jardueren ikasle matrikulatu erabiltzaileak, titulartasunaren arabera

	2009-2010 ikasturtea			2014-2015 ikasturtea			2020-2021 ikasturtea		
	Guztira	Itun.	Itundug.	Guztira	Itun.	Itundug.	Guztira	Itun.	Itundug.
Ikasleak, guztira	36.259	35.833	426	39.101	38.344	756	39.773	37.861	1.912
Ikasle erabiltzaileak, guztira	29.102	28.810	292	32.710	32.153	557	20.778	20.050	728
Garraioa	6.416	6.377	39	4.628	4.628	-	4.165	4.108	57
Jantokia	15.367	15.160	207	18.281	17.744	537	10.817	10.187	630
Egoitza	134	88	46	101	101	-	52	52	-
Umeen zaintza eskola-ordutegitik kanpo	-	-	-	1.244	1.225	20	1.879	1.857	22
Eskolaz kan. jar.	7.185	7.185	-	8.455	8.455	-	3.866	3.847	19

Iturria: Nastat. Irakaskuntza Pribatuaren Finantzaketari eta Gastuei buruzko Inkesta. INErekin elkarlanean.

Etxeek, eskainitako zerbitzu osagarriengatik, 12.508 mila euro ordaindu dituzte. Kopuru horretatik, % 74,1 jantokiari dagozkio (871 euro jantokiko erabiltzaileko ikastetxe itunduetan, eta 632 euro, ikastetxe itundugabeetan); % 18,7, garraioari; % 2,5, umeen zaintzari eskola-ordutegiaren aurretik edo ondoren; % 1,4, egoitzari, eta % 3,3, beste zerbitzu batzuei.



## EMAITZA ARRUNTAK HEZKUNTZA-MAILAKO

Balio absolutuan sarrera arrunt handienak eragiten dituzten hezkuntza-mailak Lehen, Bigarren eta Haur Hezkuntza dira. Era berean, irakasleengatiko gastu handiena eta ikasle-bolumen handiena duten mailak dira.

Emitza arruntak (sarrera arruntak ken gastu arruntak) ikasleko 23 eurokoak izan dira; 2014-15 ikasturtean, 88 euro izan ziren. Haur Hezkuntzako 1. zikloko eta Erdi Mailako Lanbide Ikasketetako mailetan izan diren galeren ondoriozko emaitzak.

### 7. TAULA

Emitza arruntak hezkuntza-mailako. Balioak ikasleko, eurotan

	Sarrera arruntak	Gastu arruntak	Ustiapen-emaitza
Guztira	4.882	4.859	23
Haur Hez. 1. zikloa	2.782	3.737	-956
Haur Hez. 2. zikloa	4.768	4.693	75
Lehen Hez.	4.857	4.799	58
DBH	5.024	4.999	25
Batxilergoa	4.983	4.926	57
Oinarrizko LH eta antzekoak	9.343	9.278	65
Lanb. Hez. Er. Gr.	3.957	4.524	-568
Goi Mail. Lan. Ik.	5.183	4.836	348

Iturria: Nastat. Irakaskuntza Pribatuaren Finantzaketari eta Gastuei buruzko Inkesta. INErekin elkarlanean.





## OHAR METODOLOGIKOA

Irakaskuntza Pribatuaren Finantzaketari eta Gastuei buruzko Inkesta bost urtez behingo estatistika-eragiketetako bat da; beraz, inkesta honen azken edizioa 2020-2021 ikasturtea izanik, aurrekoak 2014-2015ekoak eta 2009-2010ekoak dira.

Inkesta honen helburu nagusia da jarduera irakaskuntza pribatu arautuaren sektorean egiten duten ikastetxeen egitura- eta ekonomia-ezaugarriak aztertzea, bai ikastetxe itunduena bai itundugabeena (funts publikoekin finantzatuak izan ala ez), eta, inkestari dagokion aldian (2020-2021 ikasturtea), halakotzat dabilzanena.

Helburu hori lortzeko, ikastetxearen ezaugarriei buruzko eta hezkuntza-maila bakoitzari buruzko informazioa biltzen da: ikasleen eta irakasleen eraketa, bai eta haien kostu, gastu eta sarreraren egitura ere.

Gainera, aukera ematen du ikastetxe pribatuetan irakaskuntzako eta aparteko jarduerengatik eta jarduera osagarri eta zerbitzu osagarriengatik ikasleetatik datozen sarreraren bitartez etxeek duten gastuari buruzko informazioa biltzeko.

**Inkesta mota:** Bost urtean behingoa.

**Biztanle-eremua:** Lurralde nazionalean dauden irakaskuntza arautu pribatuko ikastetxeak barne hartzen ditu, jarduera nagusi gisa Inkesta honen eremuko hezkuntza-maila bat edo gehiago ematea dutenak eta halakotzat dabilzanak, erreferentziatzeko aldian (2020-2021 ikasturtea).

**Eremu geografikoa:** Lurralde nazionalean dauden irakaskuntza arautu pribatuko ikastetxe guztietara hedatzen da.

**Emaitzak zer eperi dagozkion:** 2020-2021 ikasturtea

**Informazioa zer eperi dagokion:** Inkestari urtebeteko epea dagokio, eta 2020-2021 ikasturteko datu guztiak biltzea du helburu. Ikastetxeen kontabilitatea urte naturalari lotu zaion kasuetan, datu ekonomikoak 2020. urteari dagozkio.

**Laginketa mota:** Nafarroan informazio-bilketa zehatza izan da.

**Biltzeko metodoa:** Web bidezko galdetegia.



## INFORMAZIO GEHIAGO

Nastat

Unibertsitateaz Kanpoko Irakaskuntza Pribatuaren Finantzaketari eta Gastuei buruzko Inkesta. 2020-2021 ikasturtea.



## CONTACTO | HARREMANETARAKO

[estadistica@navarra.es](mailto:estadistica@navarra.es)

848 42 34 00